



Berbarotarra



Musika, sormena eta istorioak: 4 urtez irakurzaletasunarekiko maitasuna ereiten

Lau urteko esperientziaren ostean, Haur Literatura Aretoko ipuin musikatuaren atzean dauden Mariano Hurtadok eta Nerea Ariznabarretak formula ezin hobea aurkitu dute umeak erakartzeko, eta saio bakoitza une ahaztezin bihurtzeko. 45 minututan, partaideen irudimenean arrasto sakona uzten dute, ipuinen eta emozioen arteko lotura indartuz.

Testigantzek beren kabuz hitz egiten dute: haurrek istorioez gozatzeaz gain, gogo biziz gogoratzen dituzte Nerea eta Mariano. Adibidez, iaz abestutako kanta berriro kantatu diete haurrek; kontatu zieten "Mamuki" ipuina ere gogoratzen zuten, istorioetako pertsonaiak, etab. Aurten, koloreek hartu dute protagonismoa, eta saioen aurretik aurora borealaren gaia lantzeko eskaera egin ostean, horren marrazki bat jaso du bikoteak. Sortzaileentzat, marrazkia zubi bihurtzen da: umeen hizkuntza da, oraindik ezin dute idatzi 4-5 urterekin, baina marrazkien bidez komunika daitezke.

Urte hauetan zehar, hainbat gai landu dituzte Nereak eta Marianok (musika, itsasoa, Gau Beltza edo koloreak), gaiaren arabera, ipuinak kontatzeko era aldatzen dute, eta, horretarako baliabide ezberdinak erabiltzen dituzte. Esaterako, Gau Beltzerako, iluntasuna erabili zuten tresna nagusi bezala, eta istorioak proiektzio bidez kontatu. "Beldurraiekiko harremana

landu nahi genuen eta hori nola gainditu; guretzat Gau Beltza elkartzeko bat da beldurrei eta gure iluntasunari aurre egiteko". Ikuspegi integral horrek entretenitu ez ezik, hezi eta eraldatu ere egiten du.

Jarduera horien atzean dagoen sormen-prozesua liluragarria da. Istorioak lehendik dauden ipuinetatik egokitu daitezke, edo hutsetik sortu. "Mamuki" bezalako adibideek, zeina hasiera batean txotxongiloekin kontatutako ipuin gisa jaio eta gero idazlan bihurtu zen, bikoteak berrikuntzarekin duen konpromisoa irudikatzen dute. Gainera, musikaren erabilera ez da kasualitatea; pieza bakoitzak, balsetatik hasi eta abesti folklorikoetarako, narratiba indartzen duten irudiak eta sentsazioak gogorarazten laguntzen du.

"HLA bereziki baliagarria da haurrak txiki-txikitik istorioekin lotzen dituelako". Oraindik irakurri ezin badute ere, ilustrazioekin, errimekin eta abestiekin interakzionatzen dute, eta horrek jakin-mina sustatu eta hizkuntzarekiko sentsibiltatea garatzen du, soinuaren, poesiaren eta melodien bidez. Hortik aurrera, antzerkia, sormen tailerrak eta erakusketa girotuak bezalako proposamenekin, haien irudimena eta narratibak aztertzeko gaitasuna indartzen dute.

ZERESANA dokumentalaren lanketa ikastetxeetan



laz Durangoko Azokan aurkeztu genuen dokumentalaz baliatuz eta Durangaldeko gazteek euskararekin duten harremanari buruzko iritzi eta hausnarketa bultzatu nahian, lanketa egin dugu DBHko eta Batxilergoko ikasleekin Ibaizabal, Jesuitak Ikastetxea, lurretako Institutua eta Durangoko Institutuan. Hizkuntza ohiturei, erabiltzeko zailtasunei, lagun arteko

egoerei, kultur kontsumoari... erreparatuz, ariketak planteatu ditugu: euskararen ezagutza, erabilera eta abarri buruzko galderekin lehiaketa bat, eta, egoera jakin baten aurrean nola jokatuko luketen adierazteko ariketa.

Euskaraz bizitzeko baldintzak egon daudela ondorioztatuta, egin dezagun.



TXALOPIN TXALO aurkeztu da Durangoko Azokan

Durangaldeko ahozko ondarea berreskuratzea eta transmititzea xede hartuta, Txalopin Txalo kantu liburua sortu da. Ume txikiekin jolasteko eta kantatzeko herri tradizioan ohikoak izan diren abestiak batzen ditu. Lekukoengana jo dugu gaur egun bizirik dirauten kantuak jasotzeko. Berbarok dinamizatu du Durangaldeko Mankomunitatearen proiektua eta Labayru Fundazioak egin du kantu-liburuaren ekoizpena.

Abenduan aurkeztu zen Durangoko Azokan, eta Familien Euskaraz Olgetan programaren barruan egin ohi ditugun eskolaz kanpoko saioetan erabiliko dugu; berrituta, aurkezpen musikatu itxura hartuko dute. Horrez gain, liburua erabiltzeko gonbitea egingo diegu eskolei.

Iruri Altzerreka euskara dinamizatzaile lanetan

Iruri Altzerreka maiatzetik dabil Berbaro elkartearen Udaleko euskara dinamizatzaile lanetan. Aurretik ere elkartearen ezauna zuen, bere ama eta izeko berton lan egindakoak baitira.

Berbaro hurbila eta herritarrekin lotura estua duen elkarte delarik deritzo eta bertako talde-lana eta giro ona nabarmendu ditu. Elkartearen proiektuetatik, urteko azken bertso saioari kario berezia dio, bera ere mundu horretan murgilduta baitago.

Garaikoa den arren, bere denboraren zati handi bat Durangon igarotzen du. Bere ustez, euskara ulertzen duen jendea gero eta gehiago bada ere, erabilerak behera egin du, eta aisialdiaren bidez erabilera hori indartzea garrantzitsua da.

Esku artean dituen lanen artean, AROA Plana aipatu du: Durangon euskara sustatzeko ekintzak biltzen dituen herrira begirako euskara plana. Bertan ezarritako ekintza horiek betez gero, Durangoko euskararen egoera hobekuntza nabariak lor daitezkeela uste du. Julene Azpeitia lehiaketaren kudeaketa ere asko gustatzen zaiola jakinarazi digu. Hurrengo ediziorako berrikuntza ideiak lantzen ari da. Orokorrean Berbaron asko ikasten dabilela komentatu digu.





Saguganbaran murgildu gara protagonisten bizipenak ezagutzeko

Lau egun eta ikuskizun mordoa: Ene Kantak, Katxiporreta eta Peru Magdalenaren lo-kanten aurkezpena, besteak beste.

Usue Egiaren fanzine tailerrak eman zion hasiera egitarauari, eta Txalopin Txalo kantu-liburuaren aurkezpen musikatuak itxi zuen gunea. Bi horietan murgildu gara.

"Batera egiten dugula", esan ziguten aho batez, collagea egiten ari zirela, Ordiziako 10 urteko gaztetxoek, fanzine tailerraren gauzarik onena zein den galdetu genienean. Egiak ere

argi, "taldeka egitea da gakoa: besteen ideiak errespetatu, eta elkarrengandik ikasteko balio duelako. Prozesuak baitu garrantzia."

Durangaldeko bi hezitzailek, gitarra eskuan, bertaratu ziren umeei abestu zituzten Txalopin Txaloko kantuak: Txantxibiri edo Katalamixon, esaterako. Euskal Herri osoko hurrek Saguganbaran irakurri eta abestu ostean, bertokook Saguganbarari amaiera emateko modu ederra.

Aurten ere, gaba baltza ospatu dugu Durangon, urriaren 31n



Aurreko urtean bezala, aurten ere, Gaba Baltza ospatu dugu Durangon, urriaren 31n. Oraingoan ere, herriko zenbait elkarte eta ikastetxeek desberdinek hartu dute parte eguna antolatzen. Iazko arrakastaren ostean, aurten ere egitea beharrezkoa ikusten genuen, eta horrela izan da. Asmoa da, tradizioari helduz, hurrengo urteetan ere eguna antolatzen jarraitzea.

Tabiran hasi genuen gaba, Jaizalaren eskutik kalejiran, Durangoko kaleetan zehar. Bidean, Santa Anan egin genuen geldialdia, kopia denok batera abesteko, eta arimak esnatzeko. Pinondotik eta San Agustinetik pasa ondoren, Andra Marin bukatu genuen. Amaiera bezala, aurten ere, Karrikak antzerki bikaina egin zuen, ume zein helduak han egon ziren adi begira, beldurraren beldurrez, begirik kendu gabe, eta Kiriskitin dantza taldeak eman zion bukaera gabari dantza batekin.



Taupa: bulkada berria euskarari

Euskaltzaleen Topagunea izena atzean utzi, eta Taupa izango da deitura berria. Denda den, izen aldaketa soila baino, izana berritzea da asmoa. Baina, zergatik hau guztia?


Euskara larrialdi linguistikoan dago, normalkuntza prozesuaren moteltze nabarmenean, eta, areago, atzera egiteko zantzuekin. Horren aurrean, 2023an egindako kongresuan, euskarak jauzi berri bat behar zuela ebatzi genuen Euskaltzaleon Topagunean; orain arte egin duguna mantenduta, baina tresna berriak sortzeko anbizioarekin.

Jarduna eta ekimenak berrituko ditu Taupak, helburu nagusi batekin: euskal jendarte euskalduna lortzeko herritarren aktibazioa handitzea. Aktibazioa izango baita jauzia emateko gakoa.

DATZENAK



Plateruenan, gaueko
22:00etan. Etorri
bertsoez gozatzera!




Seigarren edizioa
laster helduko da.
Erdur!



Batzordea martxan dago. Animatu parte hartzera.



Euskaltzaleok
aktibatu!



Azken neurketatik 2 urte pasatu diren honetan, berriro egin dugu Durangoko jaietako egitarauaren hizkuntza azterketa. Uste dugu beharrezkoa dela ekintzak zein hizkuntzatan egiten diren aztertzea, datuak mahai gaineen ipini, eta, aurrera begira, zer hobetu behar den zehazteko.

Hau da azterketa honetatik atera dugun ondorio nagusia: euskararen erabilera behera egin du. 2022ko datuekin alderatuta, euskarazko ekintzak % 10 gutxitu dira, ele biko eskaintzaren gorakadaren ondorioz. Aztertutako 100 ekintzetatik % 43 euskaraz izan dira, % 33 ele bitan, eta % 24 gaztelania hutsean. Kezkagarria da euskarra hutseko ekintzen beharokada, bai Jai Batzordeak bai Txosna Batzordeak antolatutako programazioan.

Musikari dagokionez, euskarazko ekitaldiak nagusi izan dira (% 42), baina umeentzako ekintzetan gaztelania oso presente egon da (% 43). Antzerkien kasuan, % 60 gaztelaniaz izan da, eta barraketan egoera larria da, musika guztia gaztelaniaz entzun baita.

Txosnek jaiak euskalduntzeko egiten duten ekarpen erraldoia azpimarratu nahi dugu, baina egia da ele biko eskaintzen gorakadak euskarazko ekintzak gutxitu dituela. Bestalde, umeentzako ekintzetan euskara indartzea funtsezkoa dela uste dugu.

Gure helburua San Fausto jaiak gero eta euskaldunagoak izatea da, eta horretarako, jaiak antolatzen dituzten eragileekin elkarlanean aritzeko prest gaude.

Txosten osoa irakurri nahi duenak eskuragarri du gure web-gunean.